

EEBBek Bosniari armak saldu dizkiote Europako espioitza zerbitzuen ustez

Bihacen borrokak gogortzen ari dira eta baliteke kroaziarrak gerran sartzeaz izatea


/'The Washington Post' egunkariak atzo kaleratu informazioaren arabera, Bosniako Gobernuak armamentua erosi du EEBBetan behin baino gehiagotan, Europako espioitza zerbitzuek jakin ahal izan dutenez. Horrek are zailago egin ditu Washingtonen eta Europan dituen aliatuen arteko harremanak. Bihacen gerraren gogortasuna areagotu egin da eta kroaziarren partehartzea laster gerta daiteke.

WASHINGTON-SARAJEVO

Espioitza informe hauek direla eta, Europako potentziek uste dute EEBBek bosniarrei armak bidaliko dizkietela aurki bere aliatu musulmanen bidez; hots, Saudi Arabia, Turkia eta Pakistanen bidez. Konfirmatuko balitz Estatu Batuek armak bidali dituztela Balkanetara, 1991n NBEko Segurtasun Kontseiluak hasi zuen enbargoaren bortxaketa nabarmena izango litzateke.

Washingtongo egunkariaren arabera, Europako herrialdeetako diplomatikoez baiezta dute susmo hauek elkarren arteko mesfidantza handitu dutela, eta NBEk Bosnian dituen 'babes eremuak' defenditzeko guztiok onartutako politika egitea eragozten dutela oraindik gehiago. Iturri horien irudiko, aitzitik, EEBB armak saltzen ari diren susmo hau ez da berria, eta orain arte egin duten hainbat bilera diplomatikotan mahai gainean izan da jadanik.

Hau egiaztatuko balitz, eginkoa kontraesanean egongo litzateke



Zepako errefuxiatuak Zenicako errefuxiatuentzako gunean, ura edateko ilaran.

AP

teke Clintonek arma enbargoari eustearen alde behin eta berriz agertu duen jarrerarekin. Ildo horretan, Etxe Zuriko nagusiak berretsi du Senatuak bosniarrei arma enbargoa altxatzeko hartu duen erabakiari betoa jarriko diola, Ordezkarien Ganbaran ere Senatuaren erabakiarekin ados agertzen badira.

Dena den, Clintonek arras gogortu du NBEren politikari dagokionez erabili ohi duen diskurtsoa. Lehendakariak NBERi leporatu zion 'babes eremuak' serbiarren esku erortzeak ekarri duen «porrotaren» erantzukizuna, eta azken aukera hartzearen alde azaldu zen: Bosniako serbiarren aurkako jarrera gogortzearen alde, alegia; beharrezko balitz, airezko eraso militarrek egitea barne. Clintonek uste du

Bosnian izandako porrotak «NBEk eta guk guztiok genuen prestigio eta begirunea» zapuztu egin duela zeharo.

Lehendakari demokratik ukatu egin zituen «europarrak gure aurka arma enbargoa ez errespetatzeaz egiten ari diren akusazioak», eta «zaharrak bezain faltsuak» direla gehitu du.

BIHAC LEHETZEAR DAGO

Pecigrad eta Coralicin, Bihaceko gunean dauden herrietan, borroka latzak izan ziren atzo goizean Bosniako serbiarren eta Bosniako Armadako Bosgarren Erregimenduaren artean. Alexander Ivanko NBEk Sarajevon duen bozeramaileak baieztatu zuen borroken gogortzea gune horretan, eta eman zituen datuen arabera, gutxienez

1.000 granada zenbatu ziren Bihacen gauean nahiz goizaldean, eta Sarajevon berriro ere alarma orokorreko seinalea piztu zuten.

Iturri berek gaineratu dutenez, Bosniako eta Kroaziako serbiarrek Bihacen inguruan daramatzaten sei egunetan 70 kilometro karratuko lur eremua kontrolatzea lortu dute. Era berean, Kroaziako Armadako bi brigada Bihacen mendebaldean ezarri dira jadanik, eta laster gerran sartuko direla espero da.

Beste gerra fronte batean, Bosniako mendebaldean hain zuten ere, kroaziarrak bosniarren Armadak 100 kilometro karratu menpean hartu ditu eta Grahovo eta Glamoc hirietarantz doa, oraindik serbiarren esku dauden hirietara, alegia, Bosnia Irratiak informatu zuenez.

Kolonian turisten autobus bat bahitu zuen gizona hil egin dute poliziek

KOLONIA

Gizonezko batek turisten autobus bat bahitu zuen atzo goizean Alemaniako Kolonia hirian eta bertan zihoazen hogei bidaiariak hilko zituen mehatxua egin. Bahiketaren salatu zuten lekuko batzuek abisatuta bertaratu zen Polizia eta bahitzaileak patruilako kide bat tirokatu zuen sabelean eta ebakuntza egin behar izan zioten. Arratsaldean bahitutakoak askatzea erabaki zuen Poliziak eta komando batek tiroz hil zuen bahitzailea.

Bahiketaren lehenbiziko orduetan bahitzaileak autobusaren gidariari tiro egin zion, eta hasieran zauritu edo hil egin zuen argi ez bazegoen ere, Poliziak hilda topatu zuen eraso egin eta gero. Bahitutako emakume bat ere hilda aurkitu zuten.

Poliziak erabat isolatu zuen Koloniako erakustazoka, bahiketaren eszenatokia, eta ez zion inori sartzen utzi, autobusean zertatzen zen Poliziak berak ere jakiterik ez zuen arren, bahitzaileak autobuseko kurtinak itxi egin baitzituen.

34 urteko emakumezko batek autobusetik ihes egitea lortu zuen, bahitzaileak maleterora zerbaiten bila bidali zuenean. Berak esan zuenez, autobusean hiru haur eta hamazazpi heldu zeuden, hasieran denak adin txikiak zirela uste bazen ere. Lekuko horren arabera, bahitzailea autobusa hartu zuten turistekin batera sartu zen. Koloniako hirian abiatu eta 40 minutura, bahitzailea bat-batean aulkitik altxatu zen, burua estali zuen eta arma batez mehatxuka hasi zen. Poliziaren segurtasun neu-

rriak saihestea lortu zuen kazetari talde batek adierazi zuenez, 34 urteko emakumearen atzetik beste bi helduk eta haur batek ere ihes egin zuten. Kazetariak hamar urte inguruko haur bat ikusi zuten Poliziarengana korrika joaten eta autobuseko atzealdeko leiho hautsitik beste bikote bat jaitsi zela informatu zuten.

Bahitzaileaz ez zeuden ziur alemaniarra edo atzerritarra zen, eta autobus konpainiako kideren bat edo terrorismoarekin lotura duen kideren bat izan zitekeela esan zuten kazetariak.

LABURREAN

BRITAINIA HANDITIK Irlandara eraman dituzte hiru preso

INLako bi preso eta IRAko bat eraman zituzten Whitmooreko kartzelatik Ipar Irlandara, Erresuma Batuko Presondegietak Zerbitzuko iturriek baieztatu dutenez. Sin Feinne «ontzat» hartu zuen leku aldatzea, nahiz eta bere ustez, «aspaldi egin beharrekoa» izan» ●

NIKARAGUA:

Lacayok Gobernua utziko du irailean

Antonio Lacayo Nikaraguako Lehendakariak ministroak Violeta Chamorro bere izebak zuzentzen duen exekutiboa utziko du irailaren 7an, gertu den hauteskunde kanpainan murgiltzeko. Lacayok adierazi zuen herrialdeko enpresari aberatsenek sustengatzen duten 'Proiektu Nazionala' aurrera eramateko lan egingo duela, eta baita hautagai izateko duen eskubidea Konstituzioan jasotakin ●

FUJIMORIK bigarren agintaldia hasi zuen atzo

Alberto Fujimori Peruko lehendakariak bigarren agintaldia hasi zuen atzo hiru helburu nagusirekin exekutiboko buruak berak agindu zuenez: «Langabeziaren aurka borrokatzea, garapen soziala bultzatzea eta terrorismoari azken kolpea ematea». Oposizioak kritika gogorak egin zituen Fujimoriren aurka, Peruko politika ekonomiko «ultraliberal eta basatia» salatuz ●

ARGENTINA: sei libaniar askatu dituzte

Paraguaytik Buenos Airesera estraditaturik iritsi ziren seilibaniar askatu egin zituzten atzo Argentinako agintariak «nazioarteko terrorismoarekin» omen zuten lotura ezin izan zutelako frogatu. Paraguaytik iritsitako Libanoko herritarrak, Argentinako hiriburuan juduen aurka izan diren atentatuetan zerikusia izan zutelakoan eraman zituzten herrialde horretara ●